

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2009/24/EE ZUZENTARAUUA, 2009ko apirilaren 23koa, ordenagailu programen babes juridikoari buruzkoa.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «DIRECTIVA 2009/24/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 23 de abril de 2009, sobre la protección jurídica de programas de ordenador» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 111/16 de 5/5/2009)

2009/24/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 111/16 2009/5/5ekoa)

2009/24/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena

2009ko apirilaren 23koa,

ordenagailu programen babes juridikoari buruzkoa

(Bertsio kodetua)

(Testu egokia EEERi dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNAREN KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Trataturia, haren 95. artikulua bereziki, aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena [1] aztertu dute,

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki [2],

Honako hau kontuan hartuta:

(1) 1991ko maiatzaren 14ko Kontseiluaren 91/250/EE Zuzentaraua, ordenagailu-programen babes juridikoari buruzkoa [3], aldatu egin da [4]. Komeni da, arrazionaltasunaren eta argitasunaren mesedetan, zuzentaraua kodetzea.

(2) Ordenagailu-programak garatzeko ezinbestekoa da giza baliabideei, baliabide teknikoari eta finantza-baliabideei dagokienez inbertsio handia egitea, eta programa horiek kostu minimo batekin kopia daitezke, modu independentean sortzeko beharrezkoa dena hartuta.

(3) Ordenagailu-programek gero eta garrantzi handiagoa dute sektore ugarian eta, horrenbestez, informatika-teknologia erabakigarritzat har daiteke Erkidegoko industria-garapena indartzeko.

(4) Ordenagailu-programen babes juridikoari dagokionez estatu kideetako legedien artean badira hainbat ezberdintasun. Egoera horrek barne-merkatuaren funtzionamenduari buruzko ondorio negatibo eta zuzenak dakartza, ordenagailu-programei dagokienez.

(5) Komenigarria da eragin horiek sorrazten dituzten ezberdintasunak ezabatzea eta, aldi berean, bestelako eraginak sortzea saihestu behar da, barne-merkatuaren funtzionamenduan modu argian eragiten ez duten ezberdintasunen kalterik gabe.

(6) Hortaz, ordenagailu-programen babeserako erkidegoko esparru juridikoaren bidez, lehenik eta behin, honakoa ezar daiteke: estatu kideek programa horiek babestea, egile-eskubideari buruzko legedia aintzat hartuta, esate baterako, literatura-lanetan. Babes horren subjektua eta objektua ezarri behar dira, bai eta babesaren subjektuek egingiza jakin batzuk baimendu edo debekatzeko dituzten eskubideak eta babesaren iraupena ere.

(7) Zuzentaru honen ondorioetarako, "ordenagailu-programa" terminoan era guztietako programak barneratzen dira, baita hardware barnean daudenak ere. Era berean, termino horrek ordenagailu-programa bat garatzeko egin beharreko prestaketa-lana ere hartzen du, betiere, prestaketa-lan horrek geroago ordenagailu-programa bat sortzea ahalbidetzen badu.

(8) Ordenagailu-programa bat lan original bat den ala ez zehazteko erabili beharreko irizpideei dagokienez, ez dira aplikagarri izaera kualitatiboak dutenak edo programaren balio estetikoari buruzkoak.

(9) Erkidegoak nazioarteko normalizazio bat sustatzeko konpromiso osoa hartu du.

(10) Ordenagailu-programa baten funtzioa ordenagailuko sistemako beste osagai batzuekin eta haietako erabiltzaileekin komunikatu eta lan egin ahal izatea da eta, horretarako, elkarrekiko loturarako eta elkarrekintzarako sistema logikoa izan behar da eta, komeni denean, baita fisikoa ere, modu horretan, euskarri fisiko eta logikoko elementuek beste euskarri fisiko eta logiko batzuekin eta haietako erabiltzaileekin lan egin dezaten, aurreikusi bezala.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Software eta hardware elementuen arteko elkarrekiko lotura eta elkarrekintza hori ezartzeko programaren atalak “interfaze” izendatu ohi dira. Elkarrekiko lotura eta elkarrekintza funtzionala “elkarreragingarritasun” izendatu ohi da. Elkarreragingarritasun horren definizioa hau izan daiteke: ordenagailu-programek informazioa trukatzeko eta hala trukaturako informazioa elkarren artean erabiltzeko duten gaitasuna.

(11) Edozein zalantza ekiditen aldera, argi eta garbi adierazi behar da soilik ordenagailu-programaren gauzapena babesten dela eta programaren elementuen barneko ideia eta printzipioak, haietako interfazeak barne, ez direla Zuzentarau honen arabera babesteko egile-eskubideen baitakoak. Egile-eskubidearen printzipio horri jarraiki, programazioko logika, algoritmo eta hizkuntzetan ideia eta printzipioak baitaratzen diren heinean, azken horiek ez dira babesten Zuzentarau honetan. Estatu kideetako legediari eta jurisprudenziari eta gai horretako nazioarteko hitzarmenei jarraiki, ideia eta printzipio horien gauzapena egile-eskubideen bidez babestu behar dira.

(12) Zuzentaruari jarraiki, “alokairu” gisa ulertuko da, ordenagailu-programa baten edo hartako kopia baten erabilera eskaintzeko operazioa, epe mugatua eta irabazi-asmoekin. Termino horretan ez da barneratzen mailegu publikoa eta, horrenbestez, aipatu mailegua ez da zuzentaru horretako aplikazio-eremuan sartzen.

(13) Egileak bere obrak baimenik gabe erreproduzitzea ekiditeko dituen eskubide esklusiboak salbuespen mugatua ezarri behar zaie. Salbuespen hori ordenagailu-programetan aplikatuko da, modu horretan, haiek legez hartu dituztenek erabili ahal izateko teknikoki ezinbestekoak diren erreprodukzioak egitea ahalbidetzeko. Horrenbestez, legez hartutako programa baten kopia erabiltzeko beharrezkoak diren karga eta garapen egintzak eta haren akatsak zuzentzeko egintza, ezin dira kontratuan debekatu. Kontratuzko klausula zehatzik ez dagoenez, bereziki programa baten kopiaren salmentari dagokionez, kopia hori legez hartu duen edozeinek programa baten kopia erabili ahal izateko edozein egintza gauzatu egin ahal izango du, betiere, helburu horrekin.

(14) Ordenagailu-programa erabiltzeko eskumena duen pertsonari ez zaio debekatu behar haren funtzionamendua behatu, aztertu edo egiaztatze edozein egintza egitea; betiere, egintza horren bidez programaren gaineko egile-eskubideak urratzen ez badira.

(15) Ordenagailu-programaren kopia gordetzen duen kodeko forma baimenik gabe erreproduzitu, itzuli, egokitu edo eraldatzeak egile-eskubideak urratzea dakar. Dena den, zenbaitetan, gerta daiteke kodearen erreprodukzioa eta formaren itzulpena ezinbestekoa izatea premiazko informazioa, modu independentean sortutako programa baten eta beste programa batzuen arteko elkarreragingarritasuna lortzeko informazioa, eskuratzeko. Hortaz, egoera zehatz horretan, programaren kopia erabiltzeko eskumena duen pertsona batek (edo beste batek haren izenean) kodearen forma aldatzeko egiten dituen erreprodukzio- eta itzulpen-egintzak izango dira soilik legezkoak eta praktika egoki batekin bateragarriak. Horrenbestez, kasu horietan ez da beharrezkoa izango aldez aurretik eskubideen titularrari baimena eskatzea. Salbuespen horren helburuetako bat sistema informatiko bateko elementu guztien elkarrekiko lotura ahalbidetzea da (fabrikatzaile ezberdinetako elementuen artekoak barne), denak batera funtzionatu ahal izateko. Egilearen eskubide esklusiboetan ez da salbuespen hori aplikatu behar, titularraren legezko interesari begira kaltegarria bada edo programa behar bezala erabiltzea eragozten bada.

(16) Egile-eskubideen legediaren arabera ordenagailu-programak babestea, hala dagokionean babesarako beste aplikazio batzuk erabiltzearen kalterik gabe ulertu behar da. Hala ere, kontratu-xedapenak deusezak eta baliorik eta eraginik gabeak izan behar dute, baldin eta urratu egiten badituzte zuzentaru honek deskonpilate-egoerarako ezarri dituen xedapenak edo segurtasun-kopia bat egiteari edo programa baten funtzionamendua behatu, aztertu eta egiaztatzeari buruzko salbuespenak.

(17) Zuzentaru honetako xedapenak Tratatu 81. eta 82. artikuluei jarraiki lehiakortasunari buruzko arauak aplikatzearen kalterik gabe ulertzen dira, baldin eta nagusitasun-egoeran dagoen hornitzaile batek uko egiten badio zuzentaru honetan zehaztutako elkarreragingarritasuna gauzatzeko beharrezkoa den informazioa helarazteari.

(18) Zuzentaru honetako xedapenak dagoeneko indarrean diren erkidegoko arauetan ezartzen diren baldintza zehatzen kalterik gabe ulertu behar dira, telekomunikazioetako sektorearen interfazeak argitaratzeari dagokionez edo Kontseiluak informatikaren eta telekomunikazioen arloan estandarizatzeari buruz hartutako erabakiei dagokienez.

(19) Bernako Hitzarmena betez, zuzentaru honek ez du eraginik zuzentaru hau aplikatzen ez den puntuei buruz nazio-legedietan ezarritako salbuespenetan.

(20) Zuzentaru honek ez die eragin behar zuzentaruak estatuko zuzenbidean sartzeko transposizio-epenean inguruan estatu kideek dituzten betebeharrak; horiek I. eranskinean, B zatian, aipatzen dira.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Babesaren xedea

1. Zuzentarau honetan xedatutakoa betez, estatu kideek egile-eskubideen bidez babestuko dituzte ordenagailu-programak eta literatura-lanak. Literatura-lanak eta obra artistikoak babesteko Bernako Hitzarmenak agindutakoari erreparatuko zaio haien definizioa zehazteko. Zuzentarau honetan "ordenagailu-programak" aipatzen denean haiek prestatzeko dokumentazioa ere barneratuko da.
2. Zuzentarau honetan aurreikusten den babesa ordenagailu-programa baten edozein adierazpidetan aplikatuko da. Ordenagailu-programa bateko edozein elementuk (haisetako interfazeen euskarri gisa baliatzen direnak barne) oinarritzat dituen ideia eta printzipioak ez dira egile-eskubideen bidez babestekoak izango zuzentarau honen arabera.
3. Ordenagailu-programa babespean izango da, baldin eta originala bada, hau da, egilearen sorkuntza intelektuala den neurrian. Ez da beste irizpiderik aplikatuko babesa onartzeko.
4. Era berean, zuzentarau honetako xedapenak 1993ko urtarrilaren 1a baino lehen sortutako programetan aplikatuko dira, egun horren aurretik dagoeneko egindako egintzen eta eskuratutako eskubideen kalterik gabe.

2. artikulua

Eskubideen titulartasuna

1. Ordenagailu-programaren egiletzat hartuko da hura sortu duen pertsona fisikoa edo pertsona fisikoen multzoa, edo, estatu kideen legediak hala baimentzen badu, legedi horren arabera eskubidearen titulartzat hartutako pertsona juridikoa.
- Estatu kide bateko legediak lan kolektiboak aitortzen dituenean, legedi horri jarraiki programa sortu duen pertsona fisiko edo juridikoa haren egiletzat hartuko da.
2. Ordenagailu-programa bat pertsona fisiko ugariren artean sortu denean, eskubide eskusiboak baterako jabetzakoak izango dira.
3. Soldatapeko langile batek hari esleitu zaizkion egitekoak betez edo enpresari baten argibideei jarraiki ordenagailu-programa bat sortzen duenean, hala sortutako ordenagailu-programari dagozkion eskubide ekonomikoen titulartasuna enpresariari dagokio, baldin eta kontrakorik adosten ez bada.

3. artikulua

Babesaren onuradunak

Literatura-lanei aplikagarri zaien egile-eskubideei buruzko nazio-legedian ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko eta juridiko guztiak izango dira babesaren onuradunak.

4. artikulua

Murrizketak dituzten egintzak

1. Kalterik egin gabe 5. eta 6. artikuluan xedatutakoari, 2. artikuluan aipatzen diren titularraren eskubide eskusiboek hauek gauzatu edo baimentzeko eskubidea emango dute:
 - a) edozein bide eta edozein modu erabilia ordenagailu-programa bat oso-osorik edo partzialki erreproduzitzea, etengabean edo aldi baterako. ordenagailu-programa bat kargatu, aurkeztu, exekutatu, transmititu edo gordetzeko hura erreproduzitzea behar denean; egintza horiek eskubidearen titularrak baimendu ondoren egingo dira;
 - b) ordenagailu-programa baten itzulpena, egokitzapena, konponketa eta beste edozein eraldaketa eta egintza horien emaitzen agerpena, ordenagailu-programa eraldatzen duen pertsonak dituen eskubideen kalterik gabe.
 - c) publikoki banatzeko edozein modu, alokairua barne, ordenagailu-programa originalarena edo haren kopia.
2. Eskubidearen titularrak edo hark baimendutako pertsona batek programa baten kopia erkidegoan lehen aldiz saltzen duenean, kopia hori erkidegoan banatzeko eskubidea agortu egingo da, ondoren programaren edo haren kopia baten alokairua kontrolatzeko eskubidea salbu.

5. artikulua

Murrizketak dituzten egintzen salbuespenak

1. Berariazko kontratu-xedapen zehatzik izan ezean, 4. artikuluko lehen paragrafoko a) eta b) idatz-zatietan adierazten diren egintzek ez dute titularraren baimenik behar, ordenagailu-programa legez hartu duen hark hura erabili ahal izateko eta bere helburuak betetzeko (akatsen zuzenketa barne) egintza horiek beharrezkoak direnean.
2. Ezingo zaio kopia bat egitea eragotzi programa erabiltzeko eskubidea duen pertsonari, baldin eta segurtasun-kopia hori egitea ezinbestekoa bada programa erabiltzeko.
3. Ordenagailu-programa bateko kopia baten legezko erabiltzaileak haren funtzionamendua behatu, aztertu eta egiaztatzeko eskumena izango du, horretarako titularraren baimenaren zain egon gabe, programaren edozein elementuren barnean dauden ideiak eta printzipioak zehazte aldera; dena den, beti programa kargatu, bistaratu, exekutatu, transmititu edo gordetzeko operazioen barnean egin beharko du, egintza horiek egiteko eskubidea baitu.

6. artikulua

Deskonpilazioa

1. Ez da eskubidearen titularraren baimenik eskatuko, 4. artikuluko lehen paragrafoko a) eta b) idatz-zatiei jarraiki, kodea erreproduzitzea eta formaren itzulpena egitea ezinbestekoa denean beste programa batzuekin modu independentean sortutako ordenagailu-programa baten elkarreragingarritasuna ahalbidetzeko beharrezko informazioa eskuratzeko, betiere, betekizun hauek betez:

- a) egintza horiek lizentziadunak edo programaren kopia bat erabiltzeko eskumena duen beste pertsona batek egitea, edo bestela, haien izenean horretarako baimendutako pertsona batek;
- b) elkarreragingarritasun hori eskuratzeko beharrezko informazioa, aldez aurretik, eta modu erraz eta azkarrean, a) idatz-zatian aipatzen den pertsonaren eskuragarri jarri ez izana, eta
- c) egintza horiek elkarreragingarritasuna lortzeko ezinbestekoak diren programa originaleko ataletara mugatzea hertsiki.

2. Lehen paragrafoan xedatutakoa aplikatzean, ezingo da horrela lortutako informazioa erabili:

- a) modu independentean sortutako ordenagailu-programako elkarreragingarritasuna lortzea ez den beste edozein helburu betetzeko;
- b) informazio hori beste batzuei helarazteko, baldin eta modu independentean sortutako ordenagailu-programako elkarreragingarritasuna ziurtatzeko ezinbestekoa ez bada, edo
- c) funtzionamenduari dagokionez oso antzekoa den ordenagailu-programa bat garatu, ekoitzi edo merkaturatzeko, edo egile-eskubideak urratzen dituen beste edozein egintza burutzeko.

3. Literatura-lan eta obra artistikoak babesteko Bernako Hitzarmeneko xedapenen arabera, artikuluko honetako xedapenen gainean ezingo da eskubidearen titularraren legezko interesak justifikatu gabeko modu batean kaltetzen dituen edo ordenagailu-programaren ohiko erabilpenaren aurkakoa den edozein interpretazio egin.

7. artikulua

Babeserako neurri bereziak

1. Kalterik egin gabe 4., 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoari, estatu kideek, beren nazio-legediak betez, neurri egokiak hartuko dituzte jarraian adierazten diren egintzak burutzen dituzten pertsonen aurka:

- a) ordenagailu-programa baten kopia zirkulazioan jartzea, haren legez kanpoko izaera ezagutuz edo suposatuz;
- b) ordenagailu-programa baten kopia merkataritza-helburuekin edukitzea, haren legez kanpoko izaera ezagutuz edo suposatuz, edo
- c) ordenagailu-programa bat babesteko erabili izan den edozein gailu tekniko baimenik gabe ezabatu edo neutralizatzeko helburu bakarra duen edozein bitarteko zirkulazioan jarri edo merkataritza-helburuekin edukitzea.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. Ordenagailu-programako legez kanpoko kopiak konfiskatu egin ahal izango dira dagokion estatu kidearen legediaren arabera.
3. Estatu kideek lehen paragrafoko c) idatz-zatian aipatzen diren bitartekoak konfiskatzea agin dezakete.

8. artikulua

Beste xedapen juridiko batzuk indarrean jarraitzea

Zuzentarau honetako xedapenak beste edozein xedapen juridikoren kalterik gabe ulertuko dira; esate baterako, honako eskubideei dagozkien xedapenen kalterik gabe: patentea, marka, bidegabeko lehia, merkataritza-sekretuak, produktu erdieroaleen babesak edo betebeharren eskubidea.

Indargabea eta inolako balio eta eraginik gabea izango da 6. artikuluan xedatutakoaren aurkakoa edo 5. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan barneratutako salbuespenen aurkakoa den kontratuzko edozein xedapen.

9. artikulua

Jakinarazpena

Zuzentarau honek arauturiko esparruan onartzen dituzten barne-zuzenbideko oinarritzko xedapenen testua jakinaraziko diote estatu kideek Batzordeari.

10. artikulua

Indargabetzea

I. eranskinaren A zatian agertzen den zuzentarauak eraldatutako 91/250/EEE Zuzentaraua indargabetzen da, I. Eranskinaren B zatian bildu diren zuzentarauak Zuzenbide nazionalera aldatzeko epeei buruz estatu kideen betebeharrei kalte egin gabe.

Ulertuko da indargabetutako zuzentaruari buruzko aipamenak zuzentarau honi egindakoak direla, eta II. eranskineko elkarrekikotasun-taulari jarraiki irakurriko dira.

11. artikulua

Indarrean sartzea

Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeitau egunera jarriko da indarrean zuzentarau hau.

12. artikulua

Hartzaileak

Estatu kideak dira zuzentarau honen hartzaileak.

Estrasburgon eginga, 2009ko apirilaren 23ean.

Europako Parlamentuaren izenean,
Presidentea
H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean,
Presidentea
P. NEČAS

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

[1] L 204 EO, 2008/08/9koa, 24. or.

[2] Europako Parlamentuaren Irizpena, 2008ko ekainaren 17koa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2009ko martxoaren 23koa.

[3] L 122 EO, 1991/05/17koa, 42. or.

[4] Ikus I. eranskineko A zatia.

ANEXO I

PARTE A

**Directiva derogada con su modificación
(contempladas en el artículo 10)**

Directiva 91/250/CEE del Consejo
(DO L 122 de 17.5.1991, p. 42)

Directiva 93/98/CEE del Consejo
(DO L 290 de 24.11.1993, p. 9)

Únicamente el artículo 11, apartado 1

PARTE B

**Plazos de transposición al Derecho nacional
(contemplados en el artículo 10)**

Directiva	Plazo de transposición
91/250/CEE	31 de diciembre de 1992
93/98/CEE	30 de junio de 1995

ANEXO II

Tabla de correspondencias

Directiva 91/250/CEE	Presente Directiva
Artículo 1, apartados 1, 2 y 3	Artículo 1, apartados 1, 2 y 3
Artículo 2, apartado 1, primera frase	Artículo 2, apartado 1, párrafo primero
Artículo 2, apartado 1, segunda frase	Artículo 2, apartado 1, párrafo segundo
Artículo 2, apartados 2 y 3	Artículo 2, apartados 2 y 3
Artículo 3	Artículo 3
Artículo 4, frase introductoria	Artículo 4, apartado 1, frase introductoria
Artículo 4, letra a)	Artículo 4, apartado 1, letra a)
Artículo 4, letra b)	Artículo 4, apartado 1, letra b)
Artículo 4, letra c), primera frase	Artículo 4, apartado 1, letra c)
Artículo 4, letra c), segunda frase	Artículo 4, apartado 2
Artículos 5, 6 y 7	Artículos 5, 6 y 7
Artículo 9, apartado 1, primera frase	Artículo 8, párrafo primero
Artículo 9, apartado 1, segunda frase	Artículo 8, párrafo segundo
Artículo 9, apartado 2	Artículo 1, apartado 4
Artículo 10, apartado 1	—
Artículo 10, apartado 2	Artículo 9
—	Artículo 10
—	Artículo 11
Artículo 11	Artículo 12
—	Anexo I
—	Anexo II